

## ARAZO MODERNOAK

Mahaiaren ertzean eserita nengoela, negarrez etorri da biloba Alaitz, futbolean B taldera jaitsi du entrenatzaileak, azkarragoa izan behar omen da onenen A taldean jokatzeko. Mugikorrari begira jarri da, instagrameko bere azken argazkiak Oihanerenak baina "like" gehiago lortzeak bakarrik lasaituko du.

Aitak ez dio jaramon handirik egin. Lanetik iritsi berria da 12 ordu eginda, nagusiak gustuko du eta gogor aritzea tokatzen zaio, organigraman gora egin nahi badu. Pantailari itsatsita, Volkswagenen azken furgoneta modeloei begira dauzka begiak, mendizalea baita.

Hala esan diet ertzetik;

- Etengabe ondokoa gainditu nahian dabilenak ez du zorionik

Bururik ere ez dute altxa, zer jakingo ote du amonak bizitza modernoaz...